

Koldo Tellitu

Ikastolen Elkarte

Euskara eta demografia

Egiaztapen bat hasteko, hezkuntzatik ez da erreza demografian eragitea, aldiz gure ikasleak, guztiak, euskalduntzea lehentasuna izan behar du Euskal Herriko hezkuntza eragile guztientzat.

Bigarren egiaztapena: Hezkuntza munduan hauteman/bizitzen ditugu lehenik aldaketa demografikoak eta horiek euskararen duten eragina. Eta oraingo honetan argi dago, horrela izaten ari da. Dena den gai demografikoari beste faktore bat gehitu behar zaio... gure ikasleen euskararen erabilerak eta kalitateak behera egin du modu larrian azken ikasturtetan. Kezkagarria da, zeharo, kanpo ebaluazioen emaitzek erakutsi diguten argazkia. Gero eta ikasle gehiago D ereduan matrikulatuta egoteak ez duelako, inondik ere, haien euskara mailaren gutxienerako garapena ziurtatzen.

Hezkuntza eragileen artean adostasun handia dago ikasleek lortu behar duten euskara mailari dagokionez, lehen Hezkuntza amaitzerakoan gutxienez, B1 maila eta B2 maila Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzerakoan. Helburu horiek oso urrun geratzen dira, ez dira lorgarri gure ustez, A eta B ereduetan ikasten ari diren ikasleentzako, eta baita D ereduan ikasten ari diren askorentzako ere. Helburu hauek lortzeko beharrezkoa da neurriak hartzea. Ezinbestekoa da hizkuntza ereduak desagertzea eta ikastetxe guztietan euskaldun eleaniztunak bermatuko dituen ikasteredu orokorra ezartzea, hau da, murgiltze eredu ezartzea. Ikastolok argi dugu: benetako murgiltze eredu bat behar dugu; ezin dugu irudikatu aldaketa hau jasotzen ez duen hezkuntza akordio edo legerik.

Zalantzarik gabe, murgiltze eredu orokortzea bakarrik ez du lortuko belaunaldi berriek hizkuntza gaitasun egokia izatea. Aitzitik, beste hainbat neurri ipini behar dira indarrean...

1. Administrazioak behar diren baliabideak bermatu behar dio ikastetxe guztiei.
2. Ebaluazio sendo bat behar da, alde betetik, gure ikasleen euskara maila derrigorrezko hezkuntza amaitzerakoan zein den jakiteko eta bestetik tarteko ebaluazioak emaitzak hobetzeko eta jarritako helburuak lortzeko hartzen diren neurrien jarraipenerako sistema eraginkorra. Ebaluazioa aipatzen dugunean, norabide batean aurreikusten dugu, hobekuntzarako ebaluazioa, hobekuntzarako aukera.
3. Ikastetxeko hizkuntza proiektuari zentralitatea eman behar zaio. Bertan hezkuntza-komunitatearen harremanak zein ikaskuntza-prozesua arautzen da, hizkuntza bakoitzak eskola barruan izango duen funtzioa eta hartuko dituen eremuak definituz.
4. Konpetentzietan oinarritutako hezkuntzaren ikuspegitik, hizkuntza konpetentzia, diziplina konpetentzia izateaz gain, oinarritzko zeharkonpetentzia bat da, ondorioz hezkuntzaren zutabe nagusi bezala tratatua izan behar da.
5. Eskola komunitatearen motibazioa eragiteko ekintzak, sugestioa eta diskurtsoa ezinbestekoa da. Ezagutza lantzeko ardura izateaz gain, erabileran eragiteko daukan erantzunkizunez ere jabetu behar da eskola komunitatea. Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua familiek babestu behar dute, seme-alaben garapen eleanitzaren aspektu guztietan inplikatu eta proiektuaren protagonista sentitu.

Badakigu, noski, Hezkuntzatik bakarrik erantzun ezin daitezkeen faktoreak ere badirela, Euskarazko kultur erreferentziek behera egin dute gero eta mundu konektatuago honetan, haur eta gazteen komunikatzeko eta kultura kontsumitzeko ohitura berrietan euskarazko kultur eskaintza ur tantak dira ozeano handi batean, kultur erakundeek duela hilabete askotatik hona ohartarazten ari diren gisan.

Demografiara itzul gaitezenean, Irailan ezagutu genituen jaiotza tasaren datu beldurgarriak: aurtengo lehen hiru hilabeteetan %4,3 egin du behera, 3.740 haur jaio ziren Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan. Datuaren garrantzia ondo uler dezazuen, erreferentzia bat: Gerra Zibileko zifretan gaude! Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian ere ez dira aurreikuspen baikorrak. Azken urteotan jaiotza-tasa jaisten ari da urtero, eta horrela jarraituko du hurrengo urteetan;

Jaiotzen datuok beste adierazle esanguratsu bat erakutsi digute: jaio diren haurretatik hirutik bat ama edo aita atzerritarra dute. Horri erantsi behar zaio ikasturtean zehar gure geletara iristen diren atzerritar jatorriko ikasleen kopurua ere gorantz doala etengabe, orain dela kurtso bi 2250, aurreko kurtsoan 4.250, honetan ia 9000.

Azken urteetako joera da hori, eta jaiotza tasaren jaitsierari erantsiz, ikasle talde honen pisua gero eta handiagoa da. Kontuan izan behar dugu familia hauek euskararen eta euskal kulturaren ezagutza oso urria dutela, edo ez dutela horien berri eta gainera askok hizkuntza eta kultura hegemonikoen eredura jotzen dute eta eskola batzordeek, nabarmenki Araban, kasu askotan bideratu dituzte A eta B ereduetara.

Gainera, ikasle hauen presentzia ez da batere orekatua izan ikastetxeen artean, eta horrek segregazio arriskua ere ekarri du. Iragan ikasturtean aldaketa bat nabaritu genuen, ez guk nahiko genukeen intentsitatekoa ezta leku guztietan ere, baina atzerriko jatorria duten ikasleen eskolatzea aurreko ikasturteetan baino modu orekatuagoan egin zen. Ikastolen zifra orokorrak bikoiztu egin ziren ikasturte batean.

Faktore hauek arriskutsuak dira euskalduntze prozesuak aurrera egin dezan, eta neurririk hartu ezean urteetan atzera egin genezake. Bigarrenengoari dagokionean, gainera, gizarte segregazio arriskua dugu eta baita hizkuntza segregazio arriskua ere. Ezin dugu ahaztu atzerriko jatorria duten ikasleek gizarteratzeko eginbidean, hizkuntza ereduaren sistema hautespen eta bazterte bidea bihurtu izan dela; beraz segregazioei aurre egiteko hizkuntza ereduak gainditu behar dira.

Ikasleen euskararen ezagutza eta kalitatearen jaitzierari jaiotza tasaren beherakada (1937ko datuetara goaz) eta euskara eta euskal kulturaren ezagutza urria edo batere ez duten ikasleen pisua gero eta handiagoa eta segregazio arriskua batuz, ekaitz perfektuaren aurrean gaudela esan genezake? Ez nuke apokaliptikoa izan nahi, baina gerta daiteke denbora gutxian ia hogeita hamar urte atzera egitea.

Baina arriskuak aukera/erronka gisa ere har genitzake. Herri gisa jokatuz gero, lor daiteke horri guztiari buelta ematea. Gai hau gure ustez herri apustu bat da. Euskal Herri euskalduna nahi dugu, euskaraz bizi, ikasi, jolas, lan egin ahal izango duten herri bat irudikatzen dugu... eta kanpotik datozenak gure herrian txertatu nahi ditugu, inklusioaren bitartez. Ikastolok argi dugu ikasle etorri berriak gurean integratuko badira euskaratik eta euskal kulturatik integratuko direla. Hori da gure apustua.

Gure ustez, euskara, hizkuntzak orokorrean, integratzeko, gizarteratzeko tresna bihurtzen da, ikasleen arteko diferentzia soziokulturalak gainditzeko balio dute eta gizarte kohesioa eta ikasleen aukera berdintasuna lortzeko bide. Atzerriko jatorria duten ikasleak gizarteratzeko eginbidean hizkuntza ereduaren sistema hautespen eta baztertze bidea bihurtu izan da.

Beraz, Nola erakarri atzeritik iritsitako ikasleak euskarara euskal kulturara eta, azken batean, Euskal Herrira?

Oraingoan ere, egiaztapen bat hasteko, ikasle guztiek, bertokoak eta kanpotik etorritakoak, gutxienez hasieran aipatutako euskarazko gaitasun mailak lortu behar dute. Ikasle guztiek derrigorrezko hezkuntzaren amaierara baldintza berdinetan heltzeko, abiapuntua/bizilekua edozein dela ere. Konponbidea ez da baldintza soziolinguistikoko makurragoa duten eremuetan gaitasunak jaitea, inondik inora ez. Kontua da, berdintasun-printzipioa bermatzeko ikasleek maila eta gaitasun berdina eskuratzeko bidean jartzea eta gutxiago duenari gehiago ematea, hau da, baliabide berezituak jartzea, ikasle guztien arteko berdintasuna bermatzeko. Hau da, erabat desagokia litzateke ikastetxea kokatuta dagoen eremuak edo ikastetxeak duen errealitate soziolinguistikoa ikasleen gaitasunak moldatzeko aukera zabalik uztea. Horrek, ikasleen arteko berdintasun-printzipioarekin talka egingo luke.

Bigarren, atzerriko jatorria duten ikasleek euskararekin erlazionatutako beharrizan jakin batzuk dituzte, euskara beharrezkoa baita ikaskuntza prozesua jarraitu ahal izateko, hau da, euskara eskuratu behar dute, bete-beteko eragina baitu ikasleen arrakasta akademikoan. Zehazki, hezkuntzak gaitasun linguistikoko bikoitzak garatu behar ditu ikasle etorri berri horiengan: komunikaziorako gaitasunak eta gaitasun kognitibo akademikoak.

Gure ustez, eta horrela jasota dugu lantzen ari garen proiektu baten, etorri berri diren ikasleek euskara klase berezituak izan behar dituzte, ikaskuntza prozesua normaltasunez jarraitu ahal izateko eta komunikazio behar besteko gaitasuna lortu arte. Kontuan hartu gabe, horrek, eskolatzea "normalizatu" bat berandu hastea ekar dezakeela. Gaitasun hau lortzeko banakako hizkuntza arreta eman behar zaie, hizkuntza errefortzuak ere eta planak diseinatuko dira. Guzti hau gure ustez eskola orduetan egin beharko da, aipatutako gaitasuna lortu arte. Azken finean, ikasle guztien oinarriko konpetentzien garapen gorenara lortzera bideratutako arreta espezializatua bermatu behar dugu.

Hirugarrena, Aniztasun kulturala eta linguistikoa landu behar dela atzeritik etorritako eta bertoko ikasleekin argi dugu, baino era berean gurea, gure identitate kultural eta linguistikoa oraindik arrisku bizi dardela eta euskal kulturaren transmisioa ez dagoela bermatuta ahaztu barik. Bi ikuspegi hauek uztartu behar ditugula argi daukagu. Ezinbestean euskara eta euskal kulturaren ezagutzan sakondu eta dituen abantailez eta onurez baliatu behar dugu atzeritik iritsitako ikasleei gure hizkuntza eta kultura irakasterakoan. Beti ere ikaslearen familiaren hizkuntzaz, kulturaz, balore sistemaz... ahal den ezagutza sakonena eskuratu eta, era berean, familiari geurearen berri ematea, gradualki, etengabe. Konfiantza eman behar diegu gure ikastoletara iristen diren atzerriko jatorria duten ikasleei... belarrira hitz goxoak xuxurlatuz!

Hasieran bere hizkuntzan, euskara eragozpen bat bezala ez dezaten sentitu eta gero gure hizkuntzan.euskara, euskal kultura eta euskal nortasuna inklusiorako tresna.

Bestetik, integrazioaren balioa azpimarratu ohi da beti. Integrazioa benetakoa eta osoa izan daiteke euskal kulturarekiko gertutasuna bultzatu gabe?

Nire ustez pertsonen ongizatea eta jatorria gehitzen duen integrazio bat planteatu behar dugu eta pertsona migratzaileak integratioko subjektu pasiboak direla ideia aldatu behar dugu eta ikusten hasi agente aktibo bezala, bere integrazio estrategiak erabakitzeko ahalmenarekin. Baina aldi berean gure identitate kultural eta linguistikoa oraindik arrisku bizian daudela eta euskal kulturaren transmisioa ez dagoela bermatuta ezin dugu ahaztu. Beraz, bi planteamendu hauek uztartzeko, Inklusiorako zeintzuk diren lehentasunezkoa esparruak definitu behar ditugu. Ikastolok argi dugu ikasle etorri berriak gurean gizarteratuko badira euskaratik, euskal kultura eta euskal nortasunetik gizarteratuko direla, hau da euskal kulturarekiko gertutasuna bultzatzea lehenetasunezkoa dela, besteak beste, Euskal Herri euskalduna nahi dugulako.

Amaitzeko Argi gorriak piztu ditugu, eta alor horretan indarrak biderkatu ditugu ikastoletan, bai erabilera eta kalitatea hobetzeko, baina baita euskararekiko atxikimendua indartzeko ere. Bai, Atxikimendua, nire ustez euskarak jakiteak dakarren onurareren inguruan, motibazioa aktibatu behar da esparru guztietan, hau da, hezkuntzan euskarari lehentasuna ematearen abantailak eta alde onak azpimarratu behar ditugu... Azken aldiari "diskurtso" hau nahiko motelduta dago eta.

Eta bereziki ikasleen arteko harremana euskaraz izatea lortu behar dugu, beraiek hautu hori egiterakoan emozioen bidez euskararekin, eta euskal kulturarekin eta euskaltzaletasunarekin atxikimendua garatu dezaten, eta ikus dezaten euskara beren garapen pertsonalerako oinarritzko elementu izan daitekeela... hauek dira ikasleen euskararekiko atxikimendua indartzeko martxan ipini dugun Pulunpa proiektuaren helburuak.

Baina hau ezin dugu ikastolok bakarrik bideratu, ezta hezkuntza eragile guztiak bakarrik. Horregatik proposatzen dugu alor eta eragile desberdinen arteko elkarlana, horregatik proposatzen dugu hizkuntza ereduak gainditu eta murgiltze sistema ezartzea, horregatik proposatzen dugu atzerritar jatorriko ikasleen eskolatze orekatua eta harrera plan integralak, herri eta eskualde mailakoak, segregazio arriskuari aurre egiteko euskaratik eta euskaraz integratzea...Ordua, da, beraz, hezkuntzak, kulturak eta euskalgintzak bat egin eta herri gisa erantzuteko erronka handi honi.

EUSKARA ETA DEMOGRAFIA IKASTOLEN IKUSPEGIA

Gai demografikoari beste faktore bat gehitu behar zaio...

- ikasleen euskararen erabilerak eta kalitateak behera egin du modu larrian azken ikasturtetan.
- Gero eta ikasle gehiago D ereduan matrikulatuta egoteak ez duelako, inondik ere, haien euskara mailaren gutxieneko garapena ziurtatzen
- Adostasun handia dago ikasleek lortu behar duten euskara mailari dagokionez, GUTXIENEZ
 - B1 LHn
 - B2 DBHn

Egiaztapen bat hasteko, hezkuntzatik ez da erreza demografian eragitea, aldiz gure ikasleak, guztiak, euskalduntzea lehentasuna izan behar du Euskal Herriko hezkuntza eragile guztientzat

- Helburu horiek ez dira lorgarri, A eta B ereduetan ikasten ari diren ikasleentzako, eta baita D ereduan ikasten ari diren askorentzako ere
- Ezinbestekoa da hizkuntz ereduak desagertzea eta ikastetxe guztietan euskaldun eleaniztunak bermatuko dituen ikasteredu orokorra ezartzea, hau da, murgiltze eredu ezartzea

Murgiltze eredu orokortzea bakarrik ez du lortuko belaunaldi berriek hizkuntza gaitasun egokia izatea. Neurriak

- Administrazioak behar diren baliabideak bermatu
- Ebaluazioa, ikasleen euskara maila zein den jakiteko
- Ikastetxeko hizkuntza proiektuari zentralitatea eman
- Hizkuntza kompetentzia, oinarriko zeharkompetentzia
- Eskola komunitatearen motibazioan eragin

Hezkuntzatik bakarrik erantzun ezin daitezkeen faktoreak ere badirela, Euskarazko kultur erreferentziak behera egin dute.

Demografiara itzul gaitezen

- Jaiotza tasaren datuak: aurtengo lehen 3 hilabeteetan %4,3 egin du behera. Gerra Zibileko zifretan gaude!
- jaio diren haurretatik hirutik bat ama edo aita atzerritarra dute
- atzerritar jatorriko ikasleen kopurua gorantz etengabe 2250, 4.250, aurreko kurtsoan ia 9000...
- Ondorioz, ikasle talde honen pisua gero eta handiagoa da. Familia hauek euskararen eta euskal kulturaren ezagutza oso urria edo ez dute.
- Askok hizkuntza eta kultura hegemonikoen eredura jotzen dute. Eskolatze batzordeak Araban.
- Segregazio arriskua. Eskolatze desorekatua.

Faktore hauek arriskutsuak dira euskalduntze prozesurako neurriak hartu ezean urteetan atzera egin genezake.

Baina arriskuak aukera/erronka gisa ere har genitzake. Herri gisa jokatzuz gero, lor daiteke buelta ematea.

Euskal Herri euskalduna nahi dugu. etorri berriak gurean integratuko badira euskaratik eta euskal kulturatik integratuko direla

Hizkuntzak gizarteratzeko tresnak dira, ikasleen arteko diferentzia soziokulturalak gainditzeko eta gizarte kohesioa eta ikasleen aukera berdintasuna lortzeko bide

Nola erakarri atzerritik iritsitako ikasleak euskarara, euskal kulturara?

Egiaztapen bat hasteko. Ikasle GUZTIEK, bertokoak eta etorritakoak, aipatutako euskarazko gaitasun mailak lortu behar dute. abiapuntua/bizilekua edozein dela ere.

Konponbidea ez da baldintza soziolinguistiko makurragoa duten eremuetan gaitasunak jaitea.

Gutxiago duenari gehiago eman, baliabide berezituak jartzea, ikasle guztien arteko berdintasuna bermatzeko

Atzerriko ikasleek euskararekin erlazionatutako beharrian jakin batzuk dituzte;

- ikaskuntza prozesua jarraitu ahal izateko
- Komunikatzeko

Atzerriko ikasleek euskara klase berezituak izan behar dituzte, behar besteko gaitasuna lortu arte, hau;

- eskolatzeari "normalizatu" bat berandu hastea ekar dezake
- eskola orduetan egin beharko da
- Banakako hizkuntza arreta, hizkuntza errefortzuak eta planak Ikasle guztien oinarriko konpetentzien garapen gorena lortzera bideratutako arreta espezializatua bermatu behar dugu

Integrazioa benetakoa izan daiteke euskal kulturarekiko gertutasun gabe?

Pertsonen ongizatea eta jatorria gehitzen duen integrazioa. Pertsona migratzaileak integrazioko agente aktibo, bere integrazio estrategiak erabakitzeko ahalmenarekin. Gure identitate kultural eta linguistikoa arrisku biziaren daudela ezin ahaztu.

Bi planteamandu hauek uztartu, Inklusiorako lehentasunezkoa esparruak definitu. Etorri berriak gizarteratuko badira euskaratik, euskal kultura eta euskal nortasunetik. Euskal kulturarekiko gertutasuna bultzatzea lehenetasunezkoa.

Aniztasun kulturala eta linguistikoa landu behar da atzeritik etorritako eta bertoko ikasleekin. Baina gure identitate kultural eta linguistikoa oraindik arrisku biziaren daudela ahaztu barik.

Bi ikuspegi hauek uztartu behar ditugula argi daukagu

Ezinbestean euskara eta euskal kulturaren ezagutzan sakondu eta dituen abantailaz eta onurez baliatu behar dugu atzeritik iritsitako ikasleei gure hizkuntza eta kultura irakasterakoan.

Baita atzerriko ikasleen hizkuntzaz, kulturaz, balore sistemaz...ahal den ezagutza sakonena eskuratu. Konfidantza eman iristen direnean.

Argi gorriak piztu ditugu, eta indarrak biderkatu ikastoletan, bai erabilera eta kalitatea hobetzeko, baina baita euskararekiko atxikimendua indartzeko ere.

Euskarak jakiteak dakarren onuraren inguruan, motibazioa aktibatu behar da, hezkuntzan euskarari lehentasuna ematearen abantailak eta alde onak azpimarratu behar ditugu. Azken aldian "diskurtso" hau nahiko motelduta dago eta.

Bereziki ikasleen arteko harremana euskaraz izatea lortu behar dugu, beraiek hautu hori egiterakoan emozioen bidez euskararekin, eta euskal kulturarekin eta euskaltzaletasunarekin atxikimendua garatu dezaten. Pulunpa proiektua

Baina hau ezin dugu ikastolok bakarrik bideratu, ezta hezkuntza eragile guztiek bakarrik. Horregatik proposatzen dugu alor eta eragile desberdinen arteko elkarlana, horregatik proposatzen dugu hizkuntza ereduak gainditu eta murgiltze sistema ezartzea, horregatik proposatzen dugu atzeritar jatorriko ikasleen eskolatze orekatua eta harrera plan integralak, herri eta eskualde mailakoak, segregazio arriskuari aurre egiteko euskaratik eta euskaraz integratzea... Ordua, da, beraz, hezkuntzak, kulturak eta euskalgintzak bat egin eta herri gisa erantzuteko erronka handi honi.